

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak enpresa txikientzat BEZaren eta sozietateen gaineko zergen izapidetza sinplifikatuko du

Agiriei eta eragiketa jakinak egiaztatzeari loturiko betebeharrak murriztuko dira

Lunes, 18 de julio de 2011

Nafarroako Gobernuak, gaur, foru dekretu bana onetsi du enpresa txikiei agirien alorreko betebeharrak murrizteko. Zehazki, aldaketek BEZaren eta sozietateen gaineko zergaren izapidetzari eragiten diete.

Sozietateen gaineko Zergaren Foru Dekretu berrian jasotako aldaketen artean nabarmena da eragiketen agiriak aurkezteko betebeharrak dakarren zama formala murriztea edo ez eskatzea. Hasierako neurri gisa, agirien betebeharrak horietatik salbuetsita geratuko dira, zerga-aldian, hamar milioi euro baino gutxiagoko negozioa dutenak, betiere ekitaldiko eragiketa guztien zenbatekoa 250.000 euro baino gehiagokoa ez bada. Pertsona edo erakunde berarekin egindako eragiketen agiriak ere ez dira eskatuko, eragiketa horien kontraprestazioa 600.000 euro baino gehiagokoa ez denean.

BEZari dagokionez, formaren eta agirien bidez egiaztatzearen aldaketek subjektu pasiboaren betebeharrak formalei eragiten die. Salbuetsitako eragiketa jakinak, besteak beste, esportazioekin zuzenean loturiko zerbitzuak, ziurtatzeko behar diren frogabideak berri eta eguneratu dira. Zerga oinarria aldatzeari buruzko araua ere aldatu da eta, azkenik, fakturatzeko betebeharraren kasuan, subjektu pasiboak inbertitzen duenean, autofaktura deiturikoaren erreferentziak aldatu dira.

Gainera, Sozietateen gaineko Zergen kasura itzuliz, kapital aldakorreko inbertsio sozietateen zergei lotuta, zerga nork ordaindu behar duen eta, lehen zergarik ordaintzen ez zutenek, kapital aldakorreko inbertsio sozietateen jaulkipen primaren banaketan edo murrizketan lorturiko zenbatekoen etekinaren gaineko atxikipenaren oinarria zein den ezartzen da.

Horiez gain, onetsitako testu berriak enpresa gazte eta berritzaileetan inbertitzeagatikoen kenkaria behar bezala aplikatzeko araudiaren garapena jasotzen du.